



MUSIKA-HIZKUNTZA IRAKASGAIKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAREN LABURPENA • xehetasunetarako, galdetu musika-eskolan

LEHENENGO MAILA

HELBURU OROKORRAK:

Ahotsaren erabilpen egoki eta naturala lortu, bakarka zein taldean abesten ohituz. Abestien pultsua eramatea. Musika entzuteko ohitura lortzea. Musika-tresna desberdinak desberdintzea. Soinuen abiadura eta ezaugarri desberdinak bereiztea. Isilunea musika bezain garrantzitsua denaren ideia bereganatu. Erritmoak mugimenduarekin barneratzea. Perkusiozko musika-tresnak era desberdin batean jotzen direla ulertzea eta bakoitza desberdintzea. Pultsua perkusiozko musika tresna desberdinekin eramatea. Musika-tresna desberdinen izenak eta nola jotzen diren jakin. Maila bakoitzari dagozkion partiturak interpretatzea.

EDUKIAK*:

Maila bakoitzari dagozkion abestiak abestu gorputzaren parte desberdinekin eta perkusiozko musika-tresna desberdinekin pultsua eramanez.

Maila bakoitzeko musika tresna desberdinen abestiak entzun eta beraien puzzleak marraztu eta beraiekin jolastu.

Koloretako gometxa borobil eta karratuekin soinu eta nota-irudi desberdinak bereiztu eta ondoren interpretatu.

Soinu eta nota-irudi desberdinetako kartekin jolastu.

Pianoarekin jotzen diren soinuak bereiztu eta gometxen bidez adierazi eta ondoren abestu.

Perkusiozko musika-tresna desberdinekin nota-irudi desberdina bereiztu eta gometxen bidez adierazi eta ondoren jo.

(* *ikus mailaz mailako eduki espezifikokoak ondorengo orrialdeetan.*

METODOLOGIA:

Musika 1, Musika 2, Musika 3, Tutti Da Capo 4, Tutti Da Capo 5, Tutti Da Capo 6, Tutti Da Capo Ipuinak eta eskolaren sorrera propioko materiala, fitxak eta kartak erabiliko dira. Musikagile desberdinen obrak.



1A MAILA

SOL, MI eta DO notak (soinuak) pentagraman bereiztu, kokatu, abestu eta entzun, koloretako gometxa borobilak edo kartak erabiliz.

Txuria, beltza eta kortxea nota-irudien denbora bereiztu, abestu eta entzun koloretako gometxa karratuak edo kartak erabiliz.

Musika 1 liburuko abestiak abestu eta gorputzaren parte desberdinekin edo perkusiozko musika tresna desberdinekin pultsua eraman.

Tutti Da Capo 4 partiturak interpretatu.

PIANO, TRONPETA eta BIOLINA musika-tresnak ezagutu. Forma eta soinu aldetik.

Tutti Da Capo liburuaren ipuin musikalen entzunaldiak.

1B MAILA

LA, SOL, FA, MI, RE eta DO notak (soinuak) pentagraman bereiztu, kokatu, abestu eta entzun, koloretako gometxa borobilak edo kartak erabiliz.

Txuria, beltza eta kortxea nota-irudien denbora bereiztu, abestu eta entzun koloretako gometxa karratuak edo kartak erabiliz.

Musika 2 liburuko abestiak abestu eta gorputzaren parte desberdinekin edo perkusiozko musika tresna desberdinekin pultsua eraman.

Tutti Da Capo 5 partiturak interpretatu.

TXIRULA, HARPA eta TINBALA musika-tresnak ezagutu. Forma eta soinu aldetik.

Tutti Da Capo liburuaren ipuin musikalen entzunaldiak.

1C MAILA

SI, LA, SOL, FA, MI, RE eta DO notak (soinuak) pentagraman bereiztu, kokatu, abestu eta entzun, koloretako gometxa borobilak edo kartak erabiliz.

Txuria, beltza, beltzaren isilunea eta kortxea nota-irudien denbora bereiztu, abestu eta entzun koloretako gometxa karratuak edo kartak erabiliz eta besoarekin neurtu.

Musika 3 liburuko abestiak abestu eta gorputzaren parte desberdinekin, perkusiozko musika tresna desberdinekin eta besoarekin pultsua eraman.

Tutti Da Capo 6 partiturak interpretatu.

KONTRABAXUA, KLARINETEA eta SAXOFOIA musika-tresnak ezagutu. Forma eta soinu aldetik.

Tutti Da Capo liburuaren ipuin musikalen entzunaldiak.

(*) Bistan denez, urtez urteko eduki espezifikoak metatzen joango dira.



MUSIKA-HIZKUNTZA IRAKASGAIKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOAREN LABURPENA • xehetasunetarako, galdetu musika-eskolan

BIGARREN MAILA

HELBURU OROKORRAK:

Taldeka zein bakarka abesterakoan jarrera egoki bat erakustea. Abesti desberdinen pultsazioa eta erritmoa jarraitzeko gaitasuna lortu.

Pultsua perkusiozko musika tresna desberdinekin eramatea eta bereganatzea, ondoren musika tresna jotzerakoan lagungarri izateko.

Musika-tresna desberdinen izenak eta nola jotzen diren jakin. Musika-tresnen familiak sailkatzea.

Musikagile desberdinak eta beraien lana ezagutu.

Maila bakoitzari dagozkion partiturak interpretatzea.

EDUKIAK*:

Maila bakoitzari dagozkion abestiak abestu edo irakurri pultsua eramanez.

Musika-tresnen familiak landu.

Koloretako gometxa borobil eta karratuekin soinu eta nota-irudi desberdinak bereiztu eta ondoren interpretatu.

Soinu eta nota-irudi desberdinetako kartekin jolastu.

Pianoarekin jotzen diren soinuak bereiztu, pentagraman idatzi eta ondoren abestu.

Perkusiozko musika-tresna desberdinekin nota-irudi desberdinak bereiztu, idatzi eta ondoren interpretatu.

Ipuin musikalen entzunaldien bidez musika klasikoa entzuteko ohitura hartu.

() ikus mailaz mailako eduki espezifikokoak ondorengo orrialdeetan. Gainera, edukiok lehenengo mailan jasotako funtsezko kontzeptu eta tekniken segida izango dira.*

METODOLOGIA:

Musika 4, Musika 5, Musika 6, Tutti Da Capo 5, Tutti Da Capo 6, Tutti Da Capo 7, Tutti Da Capo Ipuinak, Ritmo y Lectura I eta II eta eskolaren sorrera propioko materiala, fitxak eta kartak erabiliko dira. Konposatzaile desberdinen obrak.



2A MAILA

Entzunaldiak: SOL, MI eta DO soinuak pentagraman kokatu eta bereiztu, abestu eta entzun.

Txuria, beltza eta kortxea nota irudien denbora/iraupena bereiztu, abestu eta entzun.

Musika 4 liburuko abestiak abestu eta gorputzaren parte desberdinekin edo perkusiozko musika-tresna desberdinekin pultsua eraman.

TEORIA: Pentagrama / SOLen Ikurra /

Notak:  Nota-irudiak:  Isilune-irudiak: 

2/4ko, 3/4ko eta 4/4ko konpasak / Eskala / Errepikapen-ikurrak / Loturak / Punttua / Anakrusa / Erritmo- eta irakurketa-liburuetatik mailari dagozkion ariketak irakurri besoarekin pultsua eramanez.

Musika-tresnen familiak. TUBA, OBOEA eta BIOLONTXELOA musika-tresnak ezagutu. Forma eta soinu aldetik. Aurreko mailatik ezagutzen dituzten segidakoez gain izango da hori: PIANO, TRONPETA, BIOLINA, TXIRULA, HARPA, TINBALA, KONTRABAXUA, KLARINETEA eta SAXOFOIA.

Tutti Da Capo Ipuinak liburuko ipuinak.

Tutti Da Capo 4 partiturak interpretatu.

2B MAILA

Entzunaldiak: LA, SOL, FA, MI, RE eta DO soinuak pentagraman kokatu eta bereiztu, abestu eta entzun.

Txuria, beltza, kortxea eta kortxerdia nota-irudien denbora/iraupena bereiztu, abestu eta entzun.

Musika 5 liburuko abestiak abestu eta gorputzaren parte desberdinekin edo perkusiozko musika-tresna desberdinekin pultsua eraman.

TEORIA: 4. lerroko FAREN ikurra

Notak:  Nota-irudiak:  Isilune-irudiak: 

Kalderoia / Eskalako graduak / Akordeak eta Arpejoak / Tono eta tonuerdi naturalak eta aldakariarekin / Aldakariak / Erritmo- eta irakurketa-liburuetatik mailari dagozkion ariketak irakurri besoarekin pultsua eramanez.

Tutti Da Capo 5 partiturak interpretatu.



2C MAILA

Entzunaldiak: SI, LA, SOL, FA, MI, RE eta DO soinuak, pentagraman kokatu eta bereiztu, abestu eta entzun.

Txuria, beltza, kortxea eta kortxerdia nota-irudien denbora/iraupena bereiztu, abestu, entzun eta neurtu.

Musika 6 liburuko abestiak abestu eta gorputzaren parte desberdinekin edo perkusiozko musika-tresna desberdinekin pultsua eraman.


TEORIA: Notak:



6/8, 9/8 eta 12/8ko konpasak / Errepikapen ikurrak / Interbaloen sailkapena / Agogika eta Dinamika / Do Maiorren eskala / Lerro gehigarriak / Konpasaren azentuaketa.

Erritmo- eta irakurketa-liburuetatik mailari dagozkion ariketak irakurri besoarekin pultsua eramanez. *Tutti Da Capo 6* partiturak interpretatu.


2D MAILA

Entzunaldiak:  soinuak pentagraman kokatu eta bereiztu, abestu eta entzun.

Orain arte ikasitako nota-irudi guztien eta hauen arteko konbinaketen denbora/iraupen bereiztu, abestu, entzun eta neurtu.

Maila honi dagozkion abestiak abestu eta gorputzaren parte desberdinekin edo perkusiozko musika-tresna desberdinekin pultsua eraman.

TEORIA: 3. lerroko FAren ikurra:


Notak: 

2/8ko, 3/8ko eta 4/8ko konpasak / Interbaloen sailkapena / errepikapen-ikurrak / Lits musikalak / Azentuaketa / Ostinatoa / Eskalako graduak / Eskala Maiorrek eta minorrak.

Erritmo- eta irakurketa-liburuetatik mailari dagozkion ariketak irakurri besoarekin pultsua eramanez.



2E MAILA

Entzunaldiak:  soinuak pentagraman kokatu eta bereiztu, abestu eta entzun.

Orain arte ikasitako nota-irudi guztien eta hauen arteko konbinaketen denbora/iraupena bereiztu, abestu, entzun eta neurtu.

Maila honi dagozkion abestiak abestu eta gorputzaren parte desberdinekin edo perkusiozko musika-tresna desberdinekin pultsua eraman.

TEORIA: 1.go, 2.,3. eta 4. lerroko DOren Ikurrak.

Notak: 

2/2ko, 3/2ko eta 4/2ko konpasak / Tonalitate eta modalitateak / Armadura / Aldakari propioak eta akzidentalak / Akordeak eta inbertsioak / Transporteak / Artikulazioa / Aldakari bikoitzak / Sinkopa / Enarmoniak / Soinuen tesitura erreala.

Erritmo- eta irakurketa-liburutik mailari dagozkion ariketak irakurri besoarekin pultsua eramanez.

OHARRA: Adierazi den eran, eta argi denez, Musika-bizkuntzako maila bakoitzean ez da maila horretarako adierazitako eduki espezifikoa soilik lantzen. Aitzitik, aurreko ikasturteetan jorratutakoa baliatzen da ezinbesteko oinarri-gisa, bai bigarren nibel bonetan aurreratutakoa zein Musika-bizkuntzaren lehenengo nibeletik ekarritakoa.